

Frantziak paperik gabeko migranteen aurkako neurriak gogortuko ditu

Barne ministroak esan du asiloa «gutxi batzuei» soilik emango diela
• Espainia eta Marokorekin elkarlana sendotuko du, mugak indartzeko

Ibai Maruri Bilbao

Frantziako Gobernuak indartu egingo ditu hegoaldeko mugatik paperik gabe sartzen diren migranteen aurkako neurriak. Hala iragarri zuen atzo Christophe Castaner Frantziako Barne ministroak, BFMTV telebista katean egindako elkarrizketa batean. Muga baimenik gabe igarotzen dutenekin «bereziki zorrotzak» izango direla esan zuen: «Dagoneko neurriak hartu ditugu, baina orain indartu egingo ditugu». Era berean, Espainiako eta Marokoko gobernuekin duen elkarlana «gehiago» indartuko duela berretsi zuen.

Espainiako Barne ministroarekin herenegun elkartu zen, eta «lankidetzarako tresna gehiago» eskatu zizkion. Bihar eta etzi Rabaten egongo da, eta Marokoko Barne ministroari herrialdeko mugak «hobeto zain ditzala» eskatuko diola esan du. Castaneren berbetan, Italiatik Europara sartzen diren migratzaile kopuruak %95 egin du behera aurten.



Frantziako Poliziaren kontrol bat, urrian. BOB EDME

«Orain, Espainia da Europarako sarbide nagusia».

Giza eskubideen aldeko eragileek aspalditik salatu dute Frantziako Poliziak mugan atzematen dituen migratzaileak Espainiara itzultzen dituela. Bereziki, Euskal Herrian eta Herrialde Katalanetan gertatzen da. Eta aurtēn areagotu egin da, gainera. Ministroak

berak atzoko elkarrizketan eman zituen datuak. 2008a hasi denetik Frantziako Poliziak 10.000 migrante itzuli dizkio Espainiakoari. Iazko urte osoan baino %20 gehiago dira. Ministroaren arabera, iritsitako «gehienak» migratzaile ekonomikoak dira. Horregatik, asiloa «gutxi batzuei» soilik emango diela iragarri du.

Osakidetzako buruaren dimisioa nahi du PPK; erantzukizun politikoak EH Bilduk

GASTEIZ • Jon Darpon Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak Osakidetzako oposizioez esandakoek ez dituzte ase beste alderdiak. EH Bilduk erantzukizun politikoak eskatu ditu; uste du eredu aldatu behar dela. PPK neurri zehatz bat eskatu du: Maria Jesus Mugika Osakidetzako zuzendariaren dimisioa nahi du. Josu Erkoreka Jaurlaritzako bozeramaileak ez du uste dimisioa eskatzeko arrazoirik dagoenik.

Errefuxiatuentzako arropa bilketa larunbatean

DONOSTIA • Grezian negua igaroko duten errefuxiatuentzako arropa bilketa egingo du Zaporeak GKEak larunbatean. Hego Euskal Herri osoan 35 bilketa gune ipiniko ditu. Besteak beste, hiriburuetan, Markina-Xemeinen (Bizkaia), Zarautzen (Gipuzkoa), Tafallan, Leitizan (Nafarroa) eta Laudion (Araba) egongo dira. Hainbat enpresa eta ikastetxetan ere arropa bilduko dute asteen.

66 urteko gizon bat zendu da Etxaurin, haitzetan erorita

ETXAURI • Gizon bat hil zen atzo goizean Etxaurin (Nafarroa), hango haitzetan behera erorita. 66 urte zituen; haren seme batek eman zuen abisua, aita ez zelako etxera itzuli. Helikopteroz bilatu zuten, eta 17:45 aldera aurkitu zuten haren gorpua; medikuek ezin izan zuten ezer egin gizonaren bizia salbatzeko. Autopsia egingo diote, zehazki nola hil zen jakiteko.

1,6

BERGARAKO UNED-EN LANEN KOSTUA, MILIOI EUROTAN

Atzo inauguratu zuten UNEDek Bergaran (Gipuzkoa) duen egoitza berria. UNED Espainiako urrutiko unibertsitateak 2.350 metro koadroko eraikina izango du, Bergarako errege seminarioa berri ondoen. 1,6 milioi euroren kostua izan dute lanek. Gaur egun, 27 gradu, 76 master eta hemeretzi doktorego programa eskaintzen ditu UNEDek Bergaran.

Txirindulari bat hil da Bilbon, kamioi batek harrapatuta

BILBO • 46 urteko emakume bat hil zen atzo goizean, Bilboko Autonomia eta Sabino Arana kaleen artean izandako istripuan. 09:00 aurretik izan zen ezbeharra. Emakumea bizikletaz zihoan, kamioiaren parean. Kamioia beste ibilgailu bat aurreratzen ahalegindu zenean, ez zuen txirindularia ikusi, eta harrapatu egin zuen. Gidariak negatibo eman du alkohol eta droga analisisetan.

Hilberriak



Irene Metola Garrote

MAITE ZENUEN HORRETAN,
HAIZEAN, HEGAN, ASKATASUNEAN,
BETI GOGOAN IZANGO ZAITUGU.

LIZARDI MINTZA TALDEKO LAGUNAK

Eskelak

(0034) 943-30 40 30
eskelak@bidera.eus

Eskelak (0034) 943-30 40 30 eskelak@bidera.eus